

IPURUAKO AUZOKO BILERA (Ipuruako Jubilatuen egoitza 2012/12/11)

Egazelaiko proiektuaren egoerari buruzko galdera egin da	Hirigintza	Urbanizazio lanak hasi dira eta bai zuzkidura bizitokiek bai BPE-ek lizentzia daukate.
Berrizbeitia inguruko hirigintza-egoerari buruzko galdera egiten dute, Sostoatarren kaleko 7,9,11 eta 13aren osteari buruz.	Hirigintza	Ez dago aurreikusita epe motzean planeamendu aurreikuspenak burutuko direnik
Auzoko batek esaten du Egazelai baserria abandonatuta dagoela eta sasiak hasten daudela; San Kristobal auzoko etxe batzuei enbarazu eginez	Hirigintza	Egazelai baserria urbanizazio obrekin eraitsi da
San Kristobal kaleko 2,4, 6 eta 8 zenbakien irisgarritasuna hobetzeko arrapalaren egoerari buruzko galderak egin dira	Obrak	Proiektuaren balorazioa eginda dago baina ez dago epe motzerako aurreikusita
Jazinto Olabe parkearen urbanizazioari buruz galdetzen dute	Obrak	Proiektuaren erredakzioa egin baino lehen bizilagunekin bilerak egin ziren proiektua bera eta diseinari dagokionez aukera ezberdinak aurkezteko. Lanak Alimco, S.A enpresari esleitu zaizkio eta lanak azaroan hasiko dira
Juan Antonio Moguel kaleko alde batzuetan txakur kakak egoten direla eta, kexak sartu dituzte	Udaltzaingoa	Animalien jabetzari dagokion udal-ordenantza betetzen ez duen orori izuna jartzeko agindua dauka Udaltzaingoa.
Ibilgailu batzuk Zezenbide kalean txarto aparkatu eta oinezkoei ez dietela espaloitik ibiltzen uzten adierazi dute	Udaltzaingoa	Espaloian aldaketa batzuk egin ziren ibilgailuek oinezkoei traba ez egiteko
Zezen plazaren aldean zamalanetarako leku bat egokitzea eskatu da, Guardia Zibilek ez dutelako uzten han inguruan ez geratzen, ez aparkatzen	Udaltzaingoa	Ez da beharrezkoa ikusten aparkaleku bat kenduko litzatekeelako Guardia Zibilak ez duelarik oztoporik jartzen inguruetan zamalanetarako maniobrak egiteko.

IPURUAKO AUZOKO BILERA (Ipuruako Jubilatuen egoitza 2012/12/11)

Sostoatarren kaleko botikaren ondoko oinezkoen pasabidearen ondoan beti dagoela furgoneta bat aparkatuta eta oinezkoen pasabidea gurutzatzerakoan oinezkoei bisibilitatea kentzen diela azaldu dute	Udaltzaingoa	Ibilgailua ondo aparkatuta dago (ez dago araurik zebrabide baten aurrean edo atzean zein ibilgailu motak aparka dezakeen bereizten duenik)
Komentu pareko espaloian dauden zutoinak kentzea eskatu dute, oinezkoendako traban daudelako	Udaltzaingoa	Bere garaian zutoin hauek espresuki jarri ziren toki horretan ibilgailuak espaloian sartzeko ekiditeko, ez dago zutoinak kentzeko aurreikuspenik.
Zezenbide kalean, Gizarte Segurantzaren parean dagoen zulo bat konpontzea eskatu dute	Zerbitzuak	Aipatzen den puntuan asfaltoa konpondu zen eta Zezenbide kalean berriro lanak egitea aurreikusita dago
Aizarna baserriaren parean dauden edukiontziak lekuz aldatzea eskatu dute, oinezkoen pasabidea gurutzatzeko orduan oinezkoei ez dietelako ikusten uzten	Zerbitzuak	Otsailaren 5ean bi edukiontzi gorago eraman ziren zebrabidearen ikuspena hobetzeko
Ipuruako dorrearen aurreko espaloian ura presioarekin botatzen duen makina pasatzea eskatu dute, txakurrek pixa egiten dutelako eta zikina dagoelako	Zerbitzuak	Mangera sarritan pasatzen da eta presiopeko ura botatzen duen makina uztailean pasa zen inguru horretan
Artola tabernatik Isasiraino, Zezenbidetako espaloien tratamendu irristagaitzen bat ematea eskatu dute	Zerbitzuak	Ez labaintzeko tratamendua ematen da (Burgosko Zentrutik Isasiraino)
Aizarna baserrietik Ipuruako dorreraino –kuartelaren aldetik- dauden sasiak edo sastraka moztea eskatu dute.	Zerbitzuak	Orube hori jabetza pribatukoa da baina ezagun dugu jabeek sasiak moztu zituztela
Borda tabernaren parean jarritako ispilua, San Kristobal kaletik jaisten diren ibilgailuak ikusteko jarritakoa, zikina dagoela esaten	Zerbitzuak	Seinalea ordezkatzeko da berria jarritz (ez zegoen zikina baizik eta gastatuta) eta berriz orientatzen da

IPURUAKO AUZOKO BILERA (Ipuruako Jubilatuen egoitza 2012/12/11)

Argatxako Jardinetako arbolak inaustea eskatu da	Zerbitzuak	Zuhaitzak inausi dira
Fray Martin Mallea kaleko pergolaren egoeraz galdetu dute	Zerbitzuak	Pergola abuztuan ipini zen
Juan Antonio Moguel kaleko igogailutik iturriraino doazen eskaileretako eskailera-buruetako batean, euria egiten duen bakoitzean, putzua egiten dela adierazi dute	Zerbitzuak	Abuztuaren 18an estolda-zulo bat zabaldu zen arazoa konpontzeko
Romualdo Galdos kaleko zenbaki bikoitien espaloian estolderia usaina dagoela adierazi da eta hustubideak zikin daudela	Zerbitzuak	Urriaren amaierarako buzoiak ipiniko dira estolda-zuloetan usain txarrak ez irteteko.